

STEE-EILAS SINDIKATUAK ERREKLAMAZIOA JARRI DIO ORDEZKOEN BEHIN BEHINEKO BIRBAREMAZIOARI

- 2010eko urriaren 29a baino lehenago espezialitate berriak lortzeko hasitako homologaturiko ikasketak egin dituztenei aitortzea, eta zerrenda berrietan sartzeko eskubidea ematea eskatu dugu. Baita aurreko urteetan aterata zituztenei eta orain erabili nahi dituztenei.
- Erlijioko irakasleei gainontzeko zerrendetan sartzeko aukera ez ematea, orain arte egin den bezala.

Bi puntu hauez gain, gure desadostasuna adierazi diogu Hezkuntza Sailari HEOkordezkoen zerrendak eratzeko erabili den prozedurarekin, gure kezka prozedura honek sortuko dituen arazoez eta horien aurrean administrazioak hartu beharko dituen erabakien zuzentasunaz.

Bidezkoak ez diren egoerak sortu dituzte erabaki hauek. Alde batetik ikasketa homologatuak egin eta horrek suposatzen duen gastu eta denbora inbertitu duten irakasle ordezkoeekin bidegabekeria, eta bestetik, atzeko atetik sartu diren erlijioko irakasleak beste zerrendetara salto egiteko aukera lotsagabea izatea. Hizkuntza eskolen kasuan, ordezeko asko zerrendatik kanpo geratuko dira eta beste batzuk eman nahi ez duten ikasgaiak irakastera behartuta.



MURRIZKETARIK EZ



2013-ekainak 11